



Baratze ekologikoa

Baratze ekologikoak ekosistema zaintzen eta inguruneko biodibertsitatea hobetzen laguntzen du. Naturan, giza jarduera jasangarria barne hartzen duen ekoizpen modua da, produktu, pestizida eta ongarri kimikoei uko egiten diena. Landare ezberdinen jatorria eta natura ere kontutan izaten da, ez daitezela transgenikoak izan ezta hazi hibridoak ere.

Baratze ekologikoa bertako inguruneko kultur egituraren murgilduta dago eta bertako paisaiaren partaide da. Metereologiaren, toki baten orografiaren baita bertako jendearen sinismenen eta ohituren arabera ere eratzen da. Euskal Herriari dagokionez, Baserria da natur eta kulturaren arteko lotura adierazten duena, gure "kultur paisaia" sortuz.



Baratzea abenduan

Lurra izaki bizidun bat denez, beharrezkoa da ongarritzea. Ongarri natural organikoarekin, karearekin adibidez, lurra elikagaiez, mineralez hornitzea lortuko dugu. Eta ongarri mineral naturalarekin (adarrak, hostoak, janari hondakinak, belarra, egurra, simaurra) berriz, buztin lurra harrotu, ura eta oxigenoa askatu eta lurreko mikroorganismoek errazago lan egin dezaten lortuko dugu.



Ingurunea

Abenduan eguzkia bere punturik baxuenera jaitsiko zaigu, berriro biziberritu eta argiberritzeko. Hortik gabon eguneko esaera "eguberri-on", egun-berri on litzatekeena. Etxeko sua berritzeko garaia da, negurako beroa eta argia emateko.

Beraz, sua pizteko su-egurra behar da, gabon egunerako *subila*, gabon gaueko sua pizteko erabiltzen zen su-egurrari ematen zitzaion izena.

Egurra mozteko garai ona da oraingo hau, eta ilbeheran bada hobe (lizarra, artea, sagarrondoa, olibondoa, ametza...). Honen helburua egurra trinkoa eta lehorra izatea baita. Honela, izerdirik gabe egurra itxiagoa izango da eta erretzen zailagoa. Noski sugar txikiagoa izango du baina iraupen handiagoa. Egur mozte honi *epaiketa* deitzen zaio.

Eta aldi berean basoan landaketak egiteko garaia ere bada. Hostajea galtzen duten zuhaitzak landatzen hasi gaitzke. Kontuan izan izotza egiten duen eguna ez dela egokiena landaketa egiteko.





ONGI ETORRI IGARTUBEITIKO BARATZE EKOLOGIKORA